



GOBERNU BATZARRA

2021.11.30

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Tolosa

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hogeita hamarrean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hauek onartzea:

2021eko azaroaren 23ko ez ohiko bilkura publikoa.

2021eko azaroren 23ko ohiko bilkura.

2. "13.1 San Frantzisko pasealekua 37"
Azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena azkendutzat emateko prozedura abiaraztea eta entzunaldi epea irekitzea.

3. "24.1 iurramendi pasealekua"
azpiesparruko urbanizatze jarduketa programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenaren behin-betiko onspena.

4. Onartzea HAZI Fundazioaren, Basque Culinary Centerren eta Tolosako udalaren arteko lankidetzahitzarmena, Tolosan (Gipuzkoa) euskal elikadura-katearen ekintzailtza- eta digitalizazio-polo bat bultzatzeko.

5. Dekretu hauen berri ematea:

2021/1908 Dekretua: 2021/45 eta 2021/46 faktura zerrendak.

ESKU37dcd85d-04b2-480f-b2fb-1e76678f0231



1. **AKTA HAUEK ONARTZEA:**

2021EKO AZAROAREN 23KO EZ OHIKO BILKURA PUBLIKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko azaroaren 23an egindako ez ohiko batza publikoaren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2021EKO AZAROREN 23KO OHIKO BILKURA.

2021eko azaroaren 23an egindako ohiko batzarreko aktaren 4. puntuari dagokionez, Udal kontuhartzaileak adierazi du hitzarmenak ez duela jasotzen 40/2015 legeak xedaturiko gutxieneko edukia eta azaroaren 23ko bilkuran adkordio hori hartu zela gorogatu du.

Tokiko gobernuko kideek adostu dute hitzarmenaren klausulak egokitzea udal kontuhartzaileak egindako iradokizunak kontuan hartuta, honako testuaren arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Tolosako Udalak eta Arantzazulabek, ELGArekin batera, Tolosan deliberazio egitasmo ordezkatzailleko egitasmoa aurrera emateko konpromezua hartzen dute.

Bigarrena.- Asmo horrekin, eta egitasmo honen baitan, Tolosako Udalak bere gain honako konpromisoak hartu asmo ditu:

a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea egitasmoa aurrera eramateko sortzen diren organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.

b) Egitasmoa sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.

c) Egitasmoa aurrera eramateko beharrezkoak diren ondorengo baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea:

- *Deliberazioan parte-hartzaileen kudeaketa (ausazko herritarrek): Ausazko herritarren zozketaren kudeaketa (estratifikazioa; zozketa; eskutitzak/ gonbidapenak sortu, inprimatu eta bidaltzea; ...); Parte-hartzaileen gastuak (bidaiak; diru-sariak).*
- *Deliberazioaren kokalekua eta logistika: Espazioa ahalbidetzea; Deliberazio saioetan beharrezko diren baliabide eta azpiegituren kudeaketa eta kontratazioa (adib: materialak, plataforma digitalak, catering zerbitzuak, interpretazio kostuak, eta abar); Adituen parte-hartzea eta beharrezko kanpo laguntza; Deliberazio saioen fazilitazioa: saioak errazteko edo fazilitaziorako beharrezko baliabideak jartzea (edo azpikontratzea).*
- *Udal mailan zein udalaren intereseko ekosisteman komunikazioa eta sustapena (publizitatea, merchandising, webgunea, etab.).*



- OCDE eta Arantzazulab-en arteko prozesuaren jarraipeneko koordinazio bileretan interpretazio zerbitzua (behar izanez gero).

Tolosako Udalak egitasmoa aurrera eramateko jarri beharreko baliabide tekniko eta ekonomikoen kostua 2022 urtean gehienez 30.000 €koa izango da.

d) Egitasmoaren helburuak betetzeko, herritarren deliberazio prozesutik irteerako gomendioak jarraitzeko eta horiei erantzuteko konpromisoa.

d) Egitasmoarekin loturik sor daitezke partaidetzarako programa zehatzetan, prestakuntza programetan, topaketetan, mintegietan eta prestakuntzako beste hainbat jardueretan aktiboki parte hartuz.

f) Proiektu honen garatze emaitzetatik sor daitezkeen ezagutza, gida metodologikoak eta herrigintza, garapen komunitarioa eta lankidetzazko gobernantzarako onuragarriak izan daitezkeen beste edozein baliabide edo tresna interesa duen ororen eskura jarritz.

Hirugarrena.- Asmo horrekin, eta egitasmo honen baitan, Arantzazulab-ek bere gain honako konpromisoak hartu asmo ditu:

- ELGA-rekin hitzarmenaren kostua, eta prozesuaren inguruko ezagutza bideratzeko lankidetzazko (2021 udazkena eta 2023 udaberria bitartean luzatuko dena). ELGA eta Tolosako udalaren artean bitartekaritza
- Egitasmoaren sustapena: diseinua, koordinazioa, ikuskeraketa eta garapena, egitasmoaren plangintzan zehaztutako faseen eta ekintza nagusi hauen arabera:
 1. Fasea Hasiera eman - eragileak eta alderdi interesdunak mapatu; Ikaskuntza-programa diseinatu; Hurrengo etapetan parte hartuko duten nazioarteko adituak identifikatzea; Lankidetzazko hori ofizialki abiarazteko ekitaldi publikoa antolatzea.
 2. Fasea- Egitasmoaren ebaluazioa
 3. Fasea- Egitasmoa diseinatu eta ikasketa saioak
 4. Fasea- Implementazioan bidelaguntza
 5. Fasea- Emaitza eta egitasmoaren Ikaskuntza (txostena, amaierako ekitaldi publikoa)
- Lankidetzazko Gobernantzan sakontzeko eta Demokrazia deliberatiboko praktika berritzaile hauek hedatzeko eta instituzionalizatzeko baldintzak sortzea, erakunde sistemarekin harreman sarea katalizatzea (Tolosan garatuko den egitasmoaren aitzindaritza aitortuz, eta bertan zein nazioartean kokatzeko ekimenak garatuz).
- Prozesu orokorraren sustapena eta komunikazioa.

Laugarrena.- Tolosari dagokionez, egitasmoaren garapena dela eta, proiektuaren iraupena urte betekoa izango da eta 2022 urtean zehar garatuko da.

Bosgarrena.- Egitasmoaren garapen egokiari begira eta jarraipena egiteko bi aldeek jarraipen mahaia osatuko dute eta prozesu osoan zehar indarrean egongo da, bertan hartuko direlarik egitasmoa burutzeko beharrezkoak diren erabakiak.

Elkarlan-hitzarmen honen baldintzen inguruan aldaketarik egon ezker, aipatu mahaiaren baitan hartu beharko dira erabakiak bi aldeek adostasunarekin.



Seigarrena.- Adostasun honen froga gisa honako hitzarmena sinatzen dute goi-buruan adierazitako data eta lekuan.

BIGARRENA.- Elkar-lan hau aurrera eramaterako orduan bete beharko direlarik, Jarduneko Kontuhartzaileak eta Jarduneko Idazkariak beren txostenetan adierazi bezala, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, ezarritako betekizunak.

Zentzu horretan, proiektua 2021eko abendua eta 2023 urteko otsaila bitarte garatuko da. Ondorengo faseak aurreikusten direlarik:

1. fasea: Hasierako fasea
2. fasea: Egitasmoaren ebaluazioa.
3. fasea: Egitasmoa diseinatu eta ikasketa saioak
4. fasea: Inplementazioa
5. fasea: Ebaluazioa eta sozializazioa

Kostuari dagokionez, Tolosako Udalak egitasmoa aurrera eramateko jarri beharreko baliabide tekniko eta ekonomikoen kostua gehienez 30.000 €koa izango da.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena Tolosako Udalaren izenean Olatz Peon Ormazabal alkateak sinatu dezan ahalordetzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Arantzazulab fundazioari, Komunitate eta Gobernanzako Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

2. "13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37" AZPIESPARRUAREN GARAPENERAKO SINATUTAKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA AZKENDUTZAT EMATEKO PROZEDURA ABIARAZTEA ETA ENTZUNALDI EPEA IREKITZEA.

Esparrua:	13. Laskoain
Azpiesparrua:	13.1 San Frantzisko pasealekua 37
Sintzaileak:	Tolosako Udala eta Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl
Sinatze data:	2008/10/20 – 2010/06/07 (aldaketa)
Espedienteak:	B51/131/20080001 B51/131/20100001
Erlazionatutako espedienteak:	2021H1070002 – Xehetasun azterlana. 2021H1130003 – Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP/PAU). 2021H1140002 – Ituntze-hitzarmena.

AURREKARIAK

2008ko abuztuaren 11n, Tolosako Udalaren eta Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul kongregazioaren arteko hitzarmen proposamenaren hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (152 zk.) argitaratu zen. Informazio publiko



aldia igaro ostean, urte bereko urriaren 20an, aipatutako bi aldeek hitzarmena sinatu zuten.

Hitzarmenaren bidez jarduketaren hirigintza-araubidea zehazten zen, plan orokorraren dokumentuan kontuan hartzeko. Besteak beste, irabazizko eraikigarritasunaren esleipenari dagokionez, honakoa adierazi zen seigarren klausulan:

“1. Sestra gaineko eraikigarritasuna.

«a.20.1/13.1» eremuaren 1. blokean proiektatutako sestra gaineko eraikigarritasuna egikaritze unitateko lursailen jabeek esleitu zaien bere osotasunean.

Bestalde, «a.20.1/13.1» eremuaren 2. blokean proiektatutako sestra gaineko eraikigarritasuna hurrengo irizpideak jarraituta esleitu da:

— Bloke horretako beheko solairuarena eta lehenengo solairuarena dagokien egikaritze unitateko lursailen jabeek esleitu zaien.

—Blokearen gainerako solairuen eraikigarritasuna Udalari esleitu zaio, solairu horiek etxebizitza babestuen araubidean edota araubide askean egon.

2. Sestra azpiko eraikigarritasuna.

Hurrengo egoeran salbu, aipatutako azpierzemuko sestra azpian aurreikusitako eraikigarritasun osoa egikaritze unitateko lursailen jabeek esleitu zaien.

Salbuespen egoera sestra azpian egingo den aparkalekurako bideratutako azaleraren %30i dagokie, gehienez 1.000 m²(t)-koa. Udalari esleitu zaio azalera hori eta 2. blokeko bertikalean eta bere mugakideetan kokatu da, sotoa 3. solairuko %50 hartuta, gehienera ere, eta gainerako %50 soto bereko 2. solairuan. Alderdiek, hala ere, bestelako irizpideak itundu ahal izango dituzte Eraikuntza Proiektuarekin batera, kokapenari begira”.

2009ko otsailaren 3an, Ohiko Osoko Bilkurak behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari; hitzarmenean adostutako antolamendua aurreikuspenen artean sartuz. Honela, 13.1 azpiesparruko arau partikularrak bere egiten ditu hitzarmenean hitzemandako zehaztapenak, eta erabat betetzen du itundutako hirigintza-araubidea.

2010eko ekainaren 7an hitzarmenaren aldaketari hasierako onespena eman zitzaion 965 Alkate Dekretu bitartez, jendaurrean, ordea, alegazio bat aurkeztu zen hitzarmenari funtsezko aldaketa batzuk egitea eskatzen zuena. Horren ondotik, prozedura bertan behera gelditu zen.

2021eko irailaren 7an, hasierako onespena eman zitzaion lurzatiaren xehetasun-azterketari, azpierzemuen antolamendu xehatuan lurzatiaren berezko zehaztapen osagarriak jasotzen zituena.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Hirigintza-hitzarmenaren izaera eta aplikazio-araubide juridikoa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen dira hirigintza-hitzarmenak aurreikusiz, besteak beste, toki-entitateek hitzarmenak egiteko ahalmena, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo



pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko.

Aipatutako xedapenean, hirigintza-hitzaerenak izaera juridiko-administratiboa dutela azpimarratzeaz gain, kontratu izaera ere dutela ondorioztatzen da honakoa adieraziz:

“Akordioa bete-betean dagoela iritzio zaio eskaintza egin eta hitzaerenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren”.

Argi islatzen da ere hitzaerenen izaera administratiboa zein kontratuzkoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.1.b) artikuluan:

“1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publiko batek egiten baldin baditu:

(...) b) Lege batez horrela berariaz deklaraturakoak, bai eta aurreko letran adierazitakoak beste objektu bat duten beste batzuk ere, Administrazioarentzat izaera berezia daukatena, Administrazio kontratatzailearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, edo Administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako”.

Hirigintzako hitzaerenen kasuan, eztabaida ezina da erakunde publikoek funtzio publiko bat garatzen dutela beren eskumen eskusiboko hirigintza-plangintzarako ahala erabiliz.

Hitzaerenen aplikazio-araubide juridikoari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 25.2 artikuluan adierazten denez, administrazio-kontratuen prestaketa, adjudikatzea, ondorioak, aldaketa eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenean ezarritakoaren arabera burutuko dira; eta, horien ordezkari modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, adierazitako artikulua espresuki adierazten du 25.1.b) artikuluan aipatzen diren administrazio-kontratu bereziei (horrelakoak dira hirigintza-hitzaerenak) beren arau espezifikoak aplikatuko zaizkiela lehenbizi.

II. Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarri buruzko legeriako administrazio-hitzaerenak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko atariko tituluan (47-53 artikulua), administrazio-hitzaerenen araubide osoa garatzen da eta gutxieneko edukia, motak, iraupena eta azkentzea finkatzen dira.

Kontuan izanik aipatutako Legearen 47. artikulua, hitzaerenek honako ezaugarriak dituzte: 1) administrazio publikoen eta zuzenbide pribatuko subjektu baten arteko akordioak dira xede komun bat lortze aldera; 2) ezin hartu ditzakete xedatutako kontratuen berezko prestazioak; eta, 3) SPKLren araberrako araubide juridikoa daukate.

Hitzaerenen iraupenari dagokionez, berriz, 40/2015 Legeko 49.h) artikulua honakoa adierazten du:

“Hitzaerenaren indarrialdia, erregela hauek kontuan hartuta:

1-a Hitzaerenek iraupen zehaztua izan behar dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeago aurreikusten ez den arau bidez.



2-a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea”.

Aipatutako erregela horiez gain, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian adierazten da administrazio publikoek sinatutako hitzarmenak hiru urteko epean egokitu behar direla, legea indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita (azken xedapenetako hemezortzigarrenaren arabera, 2015eko urriaren 2an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Baina hitzarmen amdinistratiboen epeari buruzko auzia ez da hor amaitzen, legegileak zortzigarren xedapen gehigarrian bertan ezartzen baitu 40/2015 Legea "automatikoki" egokitzeko beharra:

“Hala ere, hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, automatikoki egokituko dira, 49.h).1.a artikuluan aurreikusitako erregelak zuzenean aplikatuz, indarraldirik zehaztuta ez duten hitzarmenak edo indarraldi bat zehaztuta edukita ere lege hau indarrean jartzean iraupen mugagabeko isilbidezko luzapen bat ezarrita duten hitzarmenak. Kasu horietan, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera”.

Hortaz, antzeman daitekeenez, lau urteko epea ezarri zaie Legea indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenei, horien iraupena zehaztu gabe badago. Beraz, aintzat harturik orain arte adierazitakoa, esan daiteke 40/2015 Legeak, 49.h) artikulua bidez, hitzarmenen iraupena lau urtetan ezartzen dela, nahiz eta jarraian zehazten den arau bidez epe luzeagoa aurreikusi ahal izango dela, eta, era berean, epe bera luzatu daitekeela beste hainbeste. Ondorioz, adierazi daiteke hitzarmenaren indarraldiaren gehieneko epea arau bidez ezarrita dagoen kasuetan, 40/2015 Legearen denbora-muga (lau urte) subsidiarioa izango dela.

III. 40/2015 Legearen aplikagarritasuna 13.1 azpiesparruko hirigintza-hitzarmenean.

Kontuan izanik aurreko puntuan adierazitakoa, beharrezkoa da udalak 2008. urtean 13.1 azpiesparruko hirigintza-antolamendurako sinatutako hitzarmena 40/2015 Legeak ezarritako indarraldi-araubide mugatuaren eraginpean ote dagoen zehaztea.

Honela, aintzat harturik hitzarmenaren izaerari eta azkentzearen araubide juridikoari buruz azaldutakoa, ondorioztatu daiteke hitzarmena azkendutzat jotzeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen direla, indarraldia amaitu bai baita, eta hori hitzarmena suntsiarazteko arrazoia da, lege beraren 51. artikulua arabera.

Ez da uste beste interpretazio bat egin daitekeenik, izan ere, hirigintzako araudiak eta kontratu-araudiak ez dute epeari buruzko inolako preskripziorik ezartzen eta hitzarmenak berak ez du egiten; beraz, 40/2015 Legeak bete behar du hutsunea.

VIII. Urbanizatzeko jarduketa-programari onespena emateko organu eskuduna.

Plangintzako hitzarmena izanik, hitzarmena azkendutzat ematea udalbatzari dagokio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2 c. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, lehenik, prozedura abiarazi eta entzunaldi epea ireki behar da, eta hori



Alkatetzaren eskumena da 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluan ezarritakoaren arabera; Tolosako Udalarari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzarrari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.

AZTERKETA JURIDIKOA

Hitzarmena azkentzeko, administrazio-prozedura bat izapidetu behar da, eta interesdunari entzun egin behar zaio ebazteko. Betebehar hori 39/2015 Legean argi aipatzen da adieraziz ezinbestekoa dela interesdunari entzunaldia ematea administrazio-egintzen bidez eta, hala, 53. artikuluan barnebiltzen da interesdunen eskubideen artean. Hori dela eta, 39/2015 Legeko 82. artikulua berariaz agintzen du ebazpena eman aurretik entzuna izateko eskubidea:

“1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunari edo, hala badagokio, haien ordezkariari, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak”.

Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul kongregazioak edo, hala badakio, bere ordezkariak, interesdun izaera dauka (39/2015 Legea – 4.1.b) artikulua) eta, hortaz, 2008. urtean sinatutako hitzarmenaren inguruan edozein erabakirik hartuz gero nahitaezkoa da entzunaldia ematea.

Bestalde, ebazpenaren beharrezkoa izango da adieraztea hirigintza-hitzarmena azkentzeak zer ondorio izango dituen. Honela, Tolosako Udalak hartutako hirigintza-konpromisoa indarrean dagoen HAPOan erabat jasota geratu denez, eta 13.1 azpiesparruak hura benetan aldatzeko prozesua hasi duenez, adierazi behar da hitzarmenean jasotako seigarren klausula ez dela aplikatzekoa eta, beraz, Tolosako Udalarari dagokiona urbanizazio-kargarik gabeko hirigintza-erakigarratasunaren %15a dela; 2/2006 Legearen 27. artikulua arabera.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea prozedura abiaraztea “13.1 San Frantzisko pasealekua 37” azpiesparruaren garapenerako sinatutako hirigintzako hitzarmena, indarrialdia igarotzeagatik, azkendutzat emateko.

BIGARRENA.- Hamabost eguneko entzunaldia ematea Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul kongregazioari edo, hala badakio, bere ordezkariari egoki irizten diren alegazioak aurkez ditzan.

HIRUGARRENA.- Adieraztea hitzarmena azkendutzat ematearen ondorioz, Tolosako Udalak 13.1 azpiesparrua egikartzeko jarduerak sortutako gainbalioetan izango duen partaidetza bat etorriko dela urbanizazio-kargarik gabeko hirigintza-erakigarratasunaren % 15arekin, eta, beraz, inolaz ere ez hitzarmenaren seigarren klausulan aitortutako eskubideen esleipenarekin.

LAUGARRENA.- Ebazpena interesdunari jakinaraztea.



3. "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMA EGIKARITZEKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN BEHIN-BETIKO ONESPENA.

Esparrua:	24. lurre
Azpiesparrua:	24.1 lurramendi pasealekua
Eskatzailea:	Construcciones Sukia SL (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Sarrera datak:	2021/02/23 (2021-2222 zk.)
(erregistro	2021/03/30 (2021-3520 zk.)
elektronikoak)	2021/04/15 (2021-3910 zk.)
Espedientea:	2021H1140001

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Kontzertazio Hitzarmen proposamena	2021/02/23	
Kontzertazio Hitzarmen proposamena zuzenduta	2021/03/30	
Kontzertazio Hitzarmena proposamena	2021/04/15	
Aholkulari juridikoaren txostena	2021/06/03	Aldekoa
Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio proposamena	2021/06/04	Aldekoa
Udaleko idazkariaren ziurtagiria TGBren erabakiari buruzkoa	2021/06/09	Hasierako onespena ematea
Jakinarazpena interesdunei	2021eko ekainairaila bitartean	
Espedientearen informazio publikoa:		
• Iragarkia GAO	2021/06/23	
• Iragarkia Berria egunkarian	2021/06/25	
• Iragarkia Diario Vasco egunkaria	2021/06/28	
• Iragarkia Tolosaldeko Atarian	2021/06/29	
• Iragarkia udaletxeko iragarki taulan	2021/06/23-2021/06/26	
• Iragarkia udaletxeko web gunean	2021/06/23-2021/06/26	
Urbanizazio kargen %7ko bermea	2021/07/06	
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria	2021/11/03	Informazio publikoari buruzkoa



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan arautzen da hitzarmen-sistema zein sistema horren bitartez jardun ahal izateko hitzarmenak izan beharreko gutxieneko edukia (artikulu horretan berariaz xedatu gabeko guztian, zazpigarren xedapen gehigarrian araututakoa jarraitu behar da). Horrela, 161., 162. eta 163. artikuluek hitzarmen-batzarrari buruzkoak dira, eta bertan arautzen dira batzarraren eraketa eta txertaketa, izaera, izaera juridikoa, eginkizunak eta helburuak.

Besteak beste, aipatutako 161. artikuluek honakoa adierazten du:

*“1.– Hitzarmen-sistema hautatuta **hitzarmena sinatuta ondoren, jabeek hilabete edukiko dute beren artean hitzarmen-batzarra eskritura publiko bidez eratzeko.***

2.– Batzarraren eraketa, batzarrak berak, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko du eta modu frogagarrian jakinaraziko die jarduketa-unitateko ondasun eta eskubideen titular guztiei. Titular horiek hilabeteko epea izango dute batzarreko kide egiteko, eta epe hori pasatakoan, batzarrean parte hartzeari uko egiten diotela iritziko zaio.

3.– Batzarreko kide izan ahalko dira, orobat, egikaritze-unitatearen kudeaketan jabeekin batera parte hartuko duten enpresa eragile urbanizatzaileak ere, batzarrak hala erabakitzen duenean eta batzarrak ezartzen duen eran. Enpresa horiek hautatzeko, betiere, kontratu publikoei aplikatzekoak zaizkion publizitate-eta lehia- printzipioak errespetatu beharko dira”.

II. Alkatetzari dagokio "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko UJP egikaritzeko hirigintza hitzarmenaren behin betiko onespina ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio behin betiko onespina ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

"24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa egikaritzeko hirigintza hitzarmena onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzari jarraitu dio, beraz, behin betiko onespina eman daiteke.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuz espedientearen jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin-betiko onespina ematea "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenari.



BIGARRENA.- Ohartaraztea hitzarmena sinatu ondoren, jabeek hilabete izango dutela euren artean hitzarmen-batzarra eskritura publiko bidez eratzeko.

HIRUGARRENA.- Jakinaraztea hitzarmen-batzarraren eraketa, batzarrak berak, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko duela eta modu frogagarrian jakinarazi beharko diela jarduketa-unitateko ondasun eta eskubideen titular guztiei. Honela, titular horiek hilabeteko epea izango dute batzarreko kide egiteko, eta epe hori pasatakoan, batzarrean parte hartzeari uko egiten diotela iritziko da.

Batzarreko kide izan ahalko dira, orobat, egikaritze-unitatearen kudeaketan jabeekin batera parte hartuko duten enpresa eragile urbanizatazaileak ere, batzarrak hala erabakitzen duenean eta batzarrak ezartzen duen eran. Enpresa horiek hautatzeko, betiere, kontratu publikoei aplikatzekoak zaizkion publizitate- eta lehia-printzipioak errespetatu beharko dira.

LAUGARRENA.- Ebazpena espedientearen sustatzaileari zein ondasun eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

4. ONARTZEA HAZI FUNDAZIOAREN, BASQUE CULINARY CENTERREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TOLOSAN (GIPUZKOA) EUSKAL ELIKADURA-KATEAREN EKINTZAILETZA- ETA DIGITALIZAZIO-POLO BAT BULTZATZEKO.

Departamentua:	Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapeneko Saila
Arloa:	Azokak
Espedientea:	2021IHTP0012

I. AURREKARIAK

- I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua araberak, Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ahal izango ditu.
- II. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak zein diren ezartzen du, eta horien artean dago **tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak sustatzea**. Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioaren eta lankidetzaren, gizarte-ekimenaren sustapenaren eta baliabideen aprobetxamendu integral, arrazional eta eraginkorren printzipioak



aplikatuz, ekimen pribatu sozialak garatutako gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen saiatuko dira, betiere egokia bada.

- III. Horrekin bat etorri, eta eskualdeko planteamendu estrategikoarekin bat etorri, Tolosako Udalak Tolosaldeko udalerria eta eskualdea garatzea planteatzen du, ekonomia kooperatiboa eta industria indartuz, eta hiri- eta landa-oreka garatuz, lankidetzaren, ekintzailtzaren, erantzukidetasunaren eta konektibitatea eta horren onurak bultzatzearen bidez.
- IV. Potentzial handieneko bektore ekonomikoetako bat elikaduraren eremua da. Horretarako, 2020an zehar, Tolosako Udalak azterlan bat garatu zuen, Tolosan elikadura-polo bat garatzeko gauzatu beharreko ekintza zehatzak identifikatu eta lehenesteko. Polo horrek jarduera ekonomikoa sortzea eta mantentzea, kalitatezko enplegua sortzea eta elikadura-katearen mailen arteko lotura sustatuko ditu, eta, horrekin guztiarekin, Tolosak elikagaien arloan duen posizionamendua indartuko du.
- V. COVID-19ren pandemiak bideratutako geldialdi baten ondoren, ekimen horri ekin zitzaien berriz ere, eta garatu beharreko proiektuaren ardatz eta ekintza estrategikoak berrikusi ziren, diseinu eta definizio ekonomikoari dagokionez helduta.
- VI. Tolosako Udalak ez du proiektu hori garatzeko baliabide ekonomiko, tekniko edo giza baliabide nahikorik, eta beharrezkotzat jotzen du horretarako lankidetzaren bat ezartzea, BCC fundazioarekin, HAZI Fundazioaren finantzioaren pean.

LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDERDIAK:

- VII. Eusko Jaurlaritzak jarduera ekonomikoa, kalitatezko enplegua eta elikakatearen konexioa sustatzen ditu: Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (PEGA, 2020) erreferentziazko estrategia da, eta katearen etorkizuneko garapenaren bektore desberdinak bultzatzen ditu (ekintzailtza, digitalizazioa, tokiko produktua). Bektore horiek estrategia eta ekimen espezifiko bidez zehaztu eta hedatzen dira, garapen-maila desberdinetan.
- VIII. HAZI erakundea Eusko Jaurlaritzarekin lotutako erakundea da, eta bere jardueraren eremuaren barruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatu, sustatu eta garatzea du helburu. Jarduera-eremu horretan sartzen dira lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa- eta itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria, sektore hori balioztatzen eta natura- eta kultura-ondarea mantentzen lagunduz.
- IX. HAZI-k, erakunde gisa dituen helburuen barruan, ekimen propioak ere garatzen ditu eta hirugarrenei laguntzen die ekintzailtzako eta gizarte-berrikuntzako



proiektuetan, elikaduraren balio-kate osoan, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko helburuarekin.

- X. Eusko Jaurlaritzak nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagai-politiken arloan zehaztutako esparru-estrategiekin bat etorriz, HAZI erakundeak ekintzaitzarekin, berrikuntzarekin, digitalizazioarekin eta iraunkortasunarekin lotutako ekimenak, ikerketak eta garapenak sustatzen ditu.
- XI. BASQUE CULINARY CENTER Fundazioaren helburua da prestakuntza eta ikerketa, berrikuntza eta ezagutza eta teknologia transferitzea gastronomiazientzien arlo guztietan.
- XII. BASQUE CULINARY CENTER Fundazioak baduela lurraldearen gaitasuna eta ezagutza Tolosan ekintzaitza-poloa ezartzeko beharrezkoak diren dinamizazio-ekintzak garatzeko, bai ekintzaitza-ardatzetatik, bai digitalizazio-ardatzetatik, bereziki gastronomia-ezagutzaren eremuetan.
- XIII. Bai HAZI, BCC eta bai Tolosako Udala garrantzitsuak eta estrategikoak dira Tolosako udal-mugarterako eta bere eskualderako, ekimen honen testuinguruan identifikatutako aukerak direla eta:
- Industria-eskualdeekiko eta inguruko poloekiko osagarritasun-potentziala eta lankidetzak.
 - Eskualdea handitzea, ingurune naturalak erakarritako kalitatezko turismoa eta eskualdeko aisia- eta gastronomia-jarduerak bideratzeko.
 - Naturarekiko errespetuarekin oso sentsibilizatuta dagoen eskualdea, ingurumen-iraultzan erreferente izateko aukera.
 - Tokiko merkataritza-sareak garatzeko aukerak.
 - Energia berriztagarrietan eta mugikortasun jasangarrian posizionatzea, biomasa aukera nagusi gisa.
 - Enpresa-dinamismoa eta kateko inbertsio- eta hazkunde-proiektuak, hainbat maila eta eskalatan.
 - Elikadura-polo batean interesa izan dezaketen proiektuak eta kolektiboak egotea (adibidez, eskala txikiko industria-garapen berriak, berrikuntzan maila ertain-baxuko euskal proiektu ekintzaileak, etab.).
 - Kontsumo-ohituren bilakaera: produktu osasungarriak, ekologikoak, kalitatekoak eta hurbiltasunekoak.
 - Elikagaien sektorearen hazkundera eta erakargarritasuna (proiektu berriak, azpisektoreak, garapenak, inbertsioak, teknologiak, etab.).
 - Eskari potentzialaren hazkundera hainbat nekazaritza-azpisektoretarako.
 - Gastronomiari eta kalitatezko elikagaiei buruzko irudi ona.
 - Anbizioa eta hazkunde-perspektibak eskualdeko erreferentziazko enpresetan.
 - Digitalizazioa: on line salmenta, konektagarritasuna, soluzio teknologikoak aplikatzea...
 - Nekazaritzarako eskuragarri dagoen eskulana, beste sektore batzuetatik datorrena.



II. ARAUBIDE JURIDIKOA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluan xedatutakoarekin bat (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), lege horren eremutik kanpo geratzen dira bertan edo administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukiaren barruan ez dauden hitzarmenak. Hala, hitzarmen honen xedea ikusita, lankidetzeta-hitzarmen den aldetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eremutik kanpo geratzen da, eta, beraz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen babesean ematen da.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalak Hazi Fundazioarekin eta Basque Culinary Center Fundazioarekin Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen babesean lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, honako klausulen arabera:

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

*Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen babesean eginiko lankidetzeta-hitzarmen honen helburua da HAZI Fundazioaren, BCC Fundazioaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzeta- eta koordinazio-esparrua ezartzea bi aldeen helburu komuna lortzea ahalbidetzeko; hau da, **TOLOSAN EUSKAL ELIKADURA-KATEAREN EKINTZAILTZETA- ETA DIGITALIZAZIO-POLO BAT** garatzeko.*

BIGARRENA: HITZARMENAREN JARDUERA-EREMUA

Hitzarmen honen jarduera-eremua Euskadiko Elikaduraren Balio Katearen ekintzailtzari lotutako ekimen baten barruan kokatzen da, udalerraren egungo gaitasunetatik eta potentzialetik abiatuta (gastronomia eta erakargarritasun turistikoa, jatorri-deiturako produktuak, azokak eta ekitaldi ezagunak, izaera ekintzailea eta berritzailea, zenbait enpresa eta kateren dinamismoa, etab.), eta, horretarako, lau garapen-eremu handi garatuz:

- *Elikadura-azokak garatzea, horiek bultzatuz eta profesionalizatuz.*
- *Politika eta estrategia publiko berrietatik eratorritako proba pilotuak eta proiektu esperimentalak hedatzea: digitalizazioa, oinarri teknologikoko ekintzailtzeta, ekonomia zirkularra, baso-bioekonomia, etab.*



- *Elikagaien arloko berrikuntza- eta ekintzailtza-ekosistema propioa diseinatzea eta garatzea.*
- *Elikagaien sektoreko enpresen garapen berrietarako instalazioak sustatzea eta aktibatzea*

HIRUGARRENA: TOLOSAKO UDALAREN KONPROMISOAK

Tolosako Udalak, Lankidetzaren Hitzarmen honen arabera, konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Ekintzailtza-poloaren esparru estrategikoa definitzen duen memoriatik (honi erantsita doa) abiatuta egindako Lan-Plana prestatzea eta Jarraipen Batzordeari aurkeztea, lankidetzaren hitzarmen honen denbora-esparrurako gauzatze-egutegi batekin.*
- *HAZI sartzeari buruzko lan-foroetan.*
- *Pertsona bat izendatzea hitzarmen honen ondoriozko jarduketan gauzatze teknikoaren jarraipena egiteko.*
- *Eskura dituen baliabide teknikoaren eta giza baliabideen bitartez, egin beharreko dinamizazio-jarduerak planteatzen eta hedatzen laguntzea.*
- *Idazkaritza teknikoko lanak egitea bilerak deitzeko, bai eta zehaztutako lan-planaren ondoriozko jardueren jarraipena, gauzatzea, justifikazioa eta ebaluazioak egitea ere.*
- *Hitzarmen honetan araututako ekarpenak egitea, BCCk Elikaduraren Ekintzailtza Poloarekin hartutako konpromisoetan parte hartuko duela bermatzeko, erakundeak aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritik. Ekarpena gehienez ere 80.000,00 (BEZ barne) eurokoa izango da hitzarmenaren gauzatze bitartean.*
- *Ekitaldi bakoitzean kreditua badago, kredituak gaitzeko espedienteak onartu beharko dira, HAZI Fundazioaren ekarpen-konpromisoetan oinarrituta izapidetuko dena.*
- *Hitzarmenaren xedea lortzeko bi alderdiek egokitzat jotzen duten beste edozein ekintza.*

LAUGARRENA: HAZI FUNDAZIOAREN KONPROMISOAK

HAZI Fundazioak, lankidetzaren hitzarmen honen arabera, konpromiso hauek hartzen ditu:

- *Erakundeko pertsona bat izendatzea hitzarmen honen ondoriozko jarduketan gauzatze teknikoaren jarraipena egiteko.*
- *Hitzarmen honen xedean ekonomikoki laguntzea, gehienez lau mila euroko zenbateko ekarpenaren bidez. Zenbateko hori 2022 eta 2023ko ekitaldietan esleituko da, ekitaldiko berrogei mila euro, betiere HAZIko xede horretarako duen aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera.*
- *Hitzarmen honen inguruan egiten diren jardueretan bere ezagutza eskaintzea.*
- *Hitzarmenaren xedea lortzeko bi alderdiek egokitzat jotzen duten beste edozein ekintza.*

BOSGARRENA: BCC FUNDAZIOAREN KONPROMISOAK

Honako konpromiso hauek hartzen ditu BCC Fundazioak Lankidetzaren Hitzarmen honen arabera:

- *Erakundeko pertsona bat izendatzea beharrezko lan teknikoak egiteko, besteak beste:*
- *Ekintza Plan bat egitea, hitzarmen honi erantsitako Lan-Planaren aurreikusitako helburuak eta jarduerak egutegi eta plangintza baten baitan kokatuz.*
- *Tolosako Ekintzailtza Poloaren dinamizatzeko eta koordinatzeko ekintzak garatzea, baita Jarraipen Batzordeak ezartzen dituen eginkizunak ere. Dinamizazio-ekintzek eta -*



proiektuek gauzatzeko aurrekontu gehigarri bat behar dutenean, finantzaketa hitzarmen honetan jasotakotik kanpo kudeatuko da.

- *Proiektuaren aurrekontua eranstea.*
- *Egindako lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren memoriak egitea.*
- *Hitzarmen honen inguruan egiten diren jardueretan bere ezagutza eskaintzea.*
- *Hitzarmenaren xedea lortzeko hiru alderdiek komenigarritzat jotzen duten beste edozein ekintza.*

Izendatutako teknikariak profil hau izango du:

- *Euskara-maila egokia, hitzarmen honen xede den proiektua behar bezala gauzatzeko behar adinakoa*
- *Gastronomia eta Sukaldaritza-Arteetako lizentziatura edo gradua.*
- *Pertsona dinamizatzailea izango da: gastronomiarekin eta tokiko elikadurarekin lotutako edozein ekitaldi, enpresa edo elkarte antolatzen parte hartu duen pertsona aktiboa. Eskualdea eta sektorea ezagutu beharko ditu, eta proiektu osoari ekiteko gaitasun osoa izango du. Era berean, proiektua modu autonomoan, proaktiboan eta osoan lantzeko gai izango da.*

SEIGARRENA.- IRAUPENA

Hitzarmen hau hiru alderdi sinatzaileek formalizatzen duten unean jarriko da indarrean, eta bi urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

ZAZPIGARRENA.- EKARPEN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Hitzarmen honen laugarren klausulan aurreikusitako ekarpen ekonomikoa bi epetan ordainduko da:

- *% 50 (40.000,00 €) hitzarmen hau sinatzen denean.*
- *Gainerako % 50 (40.000,00 €), bigarren ordainketa justifikatu ondoren.*

ZORTZIGARRENA.- EGINDAKO LANAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Tolosako Udalak ordainketa partzialak egin ahal izango ditu, sei hilabetero, justifikatutako gastuak aurkeztu ondoren.

BEDERATZIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA

Hitzarmen hau behar bezala gauzatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Honako hauek osatuko dute:

- HAZI Fundazioaren bi ordezkari:

- *Peli Manterola Arteta – HAZIko zuzendari nagusia*
- *Josu Garaialde – HAZIko Sustapeneko zuzendaria*

- BCC Fundazioaren bi ordezkari

- *Joxe Mari Aizega – Basque Culinary Center Fundazioaren zuzendaria*
- *Imanol Zubezu Lacunza – Basque Culinary Center Fundazioko laguntza-teknikaria*

- Tolosako Udalaren bi ordezkari:

- *Olatz Peón Ormazabal – Tolosako Udaleko alkatea*
- *Alaine Izagirre Lopez – Tolosako Udaleko garapen ekonomikorako teknikaria*



Batzorde horri bi alderdiek hartutako konpromisoen ebaluazioa eta jarraipena egiteko ardura ematen zaio. Interpretazioari sortzen diren arazo zehatzak ebatzi, jarduteko irizpideak ezarri, eta bi erakundeetako organo erabakitzaileei informazioa emango die. Era berean, eskatuko zaio egiaztatzeko hitzarmen honen xede diren lanak egiteko BCCk izendatutako pertsonak eskatutako baldintzak betetzen dituela. Batzorde hori, gutxienez, behin bilduko da jarraipen egokia egiteko eta hartutako konpromisoak behar bezala betetzen direla zaintzeko. Eta, nahitaez, akordioaren amaieran ere bilduko da Batzordea, haren balorazioa egiteko.

HAMARGARRENA.- LAN ARLOKO LEGERIA

BCCk hitzarmen hau gauzatzeko behar diren langileak jarriko ditu, aplikatzekoa den lan-araudiaren arabera, eta Gizarte Segurantzari eta bere enplegatuei egin beharreko ordainketetan egunean egon beharko du. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du, hitzarmena egikaritzen den bitartean, alderdi hori egiaztatzeko.

BCCko langileek ez dute eskubiderik sortuko Udalaren aurrean, eta ez dute inolako lan-harremanik izango harekin, eta argi eta garbi identifikatu beharko dira Udalaz kanpoko enpresako langile gisa. Hitzarmena iraungitzen den unean ez da Langileen Estatutuaren aginduetan aurreikusitako subrogaziorik egongo. Alde horretatik, BCCk hitzarmen honi atxikitzen dizkion langileek hitzarmenarekiko lan-mendekotasuna izango dute, eta ezein arrazoirengatik, baita kaleratzearengatik ere, langile horiek ezin izango dira Udalaren mende geratu, eta Udalak ez du inola ere esku hartuko BCCren eta bertako langileen arteko lan-harremanetan. Hori dela eta, lana antolatzea eta kontrolatzea esleipendunari bakarrik dagozkio, eta ez beste inori, eta Udalak ezin izango die inola ere zuzeneko jarraibiderik eman bertako langileei. Jarraibide, gomendio edo gidalerro horiek BCCk izendatutako solaskideari baino ez zaizkio adieraziko.

BCCk nahitaez bete beharko ditu lan-kontratazioari eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko eta arauzko xedapenak, eta horiek ez betetzeak ez du ekarriko udal-administrazioak erantzukizunik izatea hark hitzarmen hau betetzeko kontratatutako langileen aurrean.

BCCk bere konpromisoak hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren eta bere kargura dituen langile-baliabide propioekin gauzatu beharko ditu.

HAMAIKAGARRENA.- GENERO-IKUSPEGIA

Hitzarmen honen garapenean, Berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan deskribatutako betebeharrak ezarriko dira; besteak beste, berdintasun-printzipio orokorrak, genero-ikuspegia erabiltzea, estatistikak egokitzea eta hizkera inklusiboa erabiltzea.

HAMABIGARRENA.- EUSKARAREN ERABILERA

Hitzarmen hau betetzeko garatu beharreko jarduketa guztietan, ahozko informazioa eta idatzizkoa (memoriak, azterlanak...) euskaraz edo ele bitan egin beharko dira, eta, azken kasu horretan, euskarari lehentasuna emanez, Tolosako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeke arauari buruzko Udal Ordenantzaren arabera. Euskaraz egingo dira, jardueraren izaerak berak edo xede den kolektiboaren izaerak hala eskatzen duenean.

HAMAHIRUGARRENA.- JABETZA INTELEKTUALA

Lankidetzeta-hitzarmena betez egindako azterlan, memoria eta dokumentu guztiak Tolosako Udalaren jabetzakoak izango dira. Udalak osorik edo zati batean kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, eta lanen egileak ezin izango du horren aurka egin.



Egileak ezingo ditu erabili edo zabaldu hitzarmen hau gauzatzeko egindako azterlanak, memoriak eta dokumentuak, ez osorik ez partzialki, ez zuzenean, ez laburtuta, ez badu, horretarako, Tolosako Udalaren berriarazko baimenik eskuratzen.

HAMALAU GARRENA.- HITZARMENA EZ BETETZEA

Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitako kasuetan iraungiko da. Gainera, aurreikusitako ekintzaren bat edo batzuk egiten ez badira, zenbatekoa berrikusiko da eta, hala badagokio, HAZI Fundazioak alde aurretik ordaindutako zenbatekoak itzuli beharko dira.

HAMABOS GARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA OSAGARRI GISA APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa beteko da; bertan ezartzen diren laguntzak HAZIK emandako kontraprestaziorik gabeko diru-emateen oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta, ordezkio moduan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean, DLO) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (DLOren Araudia onartzen duena; aurrerantzean DLOA) ezarritakoaren arabera. DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio-printzipioei dagokienez bakarrik bada ere, hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoaren arabera, aplikazio hori zehazten baitu.

HAMASEI GARRENA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Hitzarmen honen esparruan alderdiren batek beste alderdiaren jabetzako fitxategietan sartutako datu pertsonalak eskuratzen baditu, alderdi hartzaileak, datu horiek tratatzean, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudia eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan xedatutakoa zorrotz bete beharko ditu, eta datu horiek ezin izango ditu aplikatu edo erabili hitzarmen hau betetzea ez den beste helburu batzuetarako.

Alderdiek jakinarazi dute hitzarmen honetako sinatzaileen datu pertsonalak eta harremanetarako pertsonen buruzkoak nahitaezkoak direla hitzarmenaren helburua betetzeko, eta dagozkien fitxategietan sartuko direla, ezarritako negozio-harremana kudeatzeko eta betetzeko.

Datuak Zerga Agentziari eta gainerako administrazio publikoei laga ahal izango zaizkie, betebeharrak fiskalak betetzeko, bai eta finantza-erakundeei ere, kobrantzak eta ordainketak kudeatzeko. Datuak harreman hori indarrean den bitartean eta legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan gordeko dira.

Interesdunek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo eramateko, eta kasu jakin batzuetan datuak tratatzea mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko, bai eta emandako baimenak ezeztatzeko ere. Horretarako, goiburuan adierazitako helbideetara jakinarazpen bat bidali beharko dute, "Datuak babestea" erreferentzia gisa jarrita, honako hauek adierazita: izen-abizenak, NANaren kopia, jakinarazpenetarako helbide bat eta baliatu nahi duten eskubidea.



Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatu ahal izango dute, batez ere beren eskubideak gauzatzean asebate ez badira.

HAMASEIGARRENA.- GARDENTASUNAREN ATARIA

Hitzarmen honen testua dagokion lekuetan argitaratuko da, proiektuari gardentasuna emateko.

HAMAZAZPIGARRENA.- DESADOSTASUNAK

Hitzarmen honen betearazpenean, interpretazioan eta/edo betetzean desadostasunik badago, alderdiak Tolosako (Gipuzkoa) epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira, eta beren foruari uko egingo diote berariaz.

HAMAZORTZIGARRENA: JAKINARAZPENAK

Lankidetzeta-hitzarmen honi buruzko jakinarazpen oro idatziz egin beharko da, eta aurrez aurre entregatu beharko da, edo, bestela, postaz, faxez, mezulariz, posta ziurtatuz edo burofaxez bidali, aurrerago zehaztutako helbideetara. Komunikazio horiek jaso izana idatziz berretsi beharko da, bidaltzaileak hala eskatzen badu.

Jakinarazpenetarako, alderdiek honako helbide eta harremanetarako pertsona hauek izendatu dituzte:

(a) HAZIren aldetik:

Helbidea: Granja Modelo, z/g, 01192 Arkauti, Araba

Arreta: Josu Garaialde

Helbide elektronikoa: jgaraialde@hazi.eus

(b) BCCren aldetik:

Helbidea: Donostiako Juan Abelino Barriola pasealekua 101

Arreta: Joxe Mari Aizega

Helbide elektronikoa: jmaizega@bculinary.com

(c) Tolosako Udalaren aldetik:

Helbidea: Plaza Zaharra, 6A, 20400 Tolosa, Gipuzkoa

Erreferentea: Alaine Izagirre Lopez

Helbide elektronikoa: aizagirre@tolosa.eus

Klausula honetan jakinarazpenetarako adierazitako datuak beste alderdiari idatziz jakinaraziz aldatu ahal izango dira, aldaketa gauzatu baino zazpi egun lehenago, gutxienez.

Eta hitzarmen honen edukiarekin ados daudela adierazteko, bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

TOLOSAKO ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal

Nire aurrean,

HAZI FUNDAZIOKO
ZUZENDARIA

Peli Manterola Arteta

BASQUE CULINARY
CENTER FUNDAZIOKO
ZUZENDARIA

Joxe Mari Aizega

IDAZKARIA

Begoña Garmendia Vazquez



BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako sailari, kontuhartzaitzari eta interesatuei.

5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2021/1908 DEKRETUA: 2021/45 ETA 2021/46 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/1908 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

45. zenbaki duena, 442,90 eurokoa.

46. zenbaki duena, 414.951,17 eurokoa.

Zerrenda hauetan sartuta dauden fakturak oniritzi teknikoa dute eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

45. zenbaki duena, 442,90 eurokoa.

46. zenbaki duena, 414.951,17 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00026

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
Jarduneko idazkaria

Karmele Contreras Goikoetxea

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0026-2021-11-30 Gobernu batzarreko akta/2021-11-30 Gobernu